

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko otsailaren 9a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lekaroz • Garai bateko ospea galduta, 110 urteren bueltan, sei kaputxino besterik ez dira gelditzen ikastetxean
Jesus Cedazo • «Esperantoa ez da inorena, eta, aldi berean, denona da»

Hogei urte ez dira



20 urte

**ZALDIKO
MALDIKO
KULTUR ELKARTEA**




Duela hogei bat urte –egun zehatza ez dakite– hasi zen Zaldiko Maldikoren arrapalada. Iruñerriko euskaldunen biltokia izateko sortu zen, eta halaxe izan da

hogei urtean. Eta bide batez euskarazko ekitaldi mordoan antolatu dute. Eta hainbat

ekimen eta talderen aireratze pista ere izan da. Hogei urte bete dituzte, baina urtemugarik ez balute bezala segitu dute, hamabostean behin euskarazko kultur ekitaldiak antolatzen, ospakizun berezirik egin gabe, trosta lasaian.

Lekaroz ●


110 urteko historia



Lekarozko komentu eta ikastetxeak ez du garai batean izan zuen jende mugimendua. Egun sei kaputxino besterik ez dira gelditzen eta eraikineko zenbait zati oso egoera txarrean daude. ● RAKEL GONI

Lekarozko komentuan bost aita kaputxino eta anaia bat gelditzen dira oraindik

Ospe handikoa izan zen garai batean Lekarozko Kontseilu Onaren Gure Amaren ikastetxea. Espainiako Estatu osoko gazteak egon ziren ikasten bertan. Orain aita kaputxinoak bakarrik gelditu dira eraikin erraldoian.



zuen. Hori dela eta, eraikin zaharraren ondoan beste hiru eraiki zituzten ikasgelak eta logelak berriro ezartzeko. Suteak ere arriskuan jarri zuen liburutegia, balio handikoa bera, eta denen artean 40.000 liburu inguru atera behar izan zituzten lasterka. Gaur egun liburutegia osorik dago. Liburu bitxiak daude bertan, hala nola Egiptoko hieroglifikoak biltzen dituen bat, edota Korana bera, arabiarrez. Euskal literaturak ere leku handia betetzen du.



HASIERAKO APAIZGAITEGIA 1891. urtean eraiki zuten, Llevaneras aitek bultzatuta. Kaputxino izan nahi zutenentzat eginda zegoen, batez ere itsasoz bestaldeko misioetara (Txina, Filipina uharteak...) joan nahi zuten gazteak prestatzeko. Ondotik, joan den mendearen hasieran, 1909. urtearen inguruan, bigarren hezkuntzako institutu bihurtu zen.

Irakaskuntza oso ona omen zen Lekarozko institutuan. Antza denez, irakasleak urteetan egoten ziren institutuan, eta azkenean irakasgaiak erabat menperatzen zituzten. Artaxonako aita Fernando, adibidez, 44 urtez izan zen irakasle, eta bera bezala beste hainbeste. Bestalde, diziplina nahiko zorrotza zegoen bertan. Aita Fernandok gogoratu du azterketak baino lehenago liburuak atsedendietara ateratzen debekatu egiten zirela mutilei. «Hori beste zigorrak baino txarragoa zen ikasleentzat», azaldu du. «Nik esaten nien: bere garaian ikastea zeneukaten».

Ikastetxean 80ko urteak arte mutilak bakarrik ibili ziren, handik aitzinera bakarrik onartu zituzten neskek. «Arazo handia zegoen horrekin», dio Aita Fernandok. «Zer gertatuko da neskek sartzen badira? Eta azkenean ez zen ezer berezirik izan, guztiak oso ongi konpontzen ziren».

Liburutegi handia

Orotara 400 pertsona baino gehiago bizi izan ziren barnetegian eta komentuan. 1962. urtean sute batek mutilen logelen zati handi bat birrindu

Bertako kaputxino asko euskaldunak izanik euskararen inguruko lan asko egin zituzten. Aita Donostia bera Lekarozko komentuan hil zen. «Hasiera batean nazionalisten talde bat ginela esaten zuten», dio irriz aita Fernandok.

Gaur egun oso zaila zaie sei kaputxinoei egoitza guztia mantentzea. Eraikina bera zenbait tokitan oso egoera txarrean dago. Azken egunotako haize boladek hainbat teilatuta botatu dituzte. Aita Fernandoren ustez, «ez da inor gehiago etorriko Lekarozera, kaputxino gazteenak Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan behar dituzte; jakizu noiz arte iraungo duen honek».

Garai batean hogeit hamar pertsona inguru zeuden ikastetxean eta komentuan lanean. Orain dela bi urte erretiratu zen azkenekoa. «Diru asko kostatzen zitzaigun jendea laguntzen edukitzea; frontoia zena egun alokatuta diogu kiwi lantegi bati, eta horrek diru aldetik asko laguntzen digu; baratzean ere erretiratu dituzte kiwiak» azaldu digu aita Fernandok. Era berean, mezekin eta aitorrezekin lan handia daukate kaputxinoek, beraiek baitira Oharizko eta Lekarozko komentuen arduradun eta baita Arizkungoko konfessore ere.

→ Rakel Goñi

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Gizontxo bat ematen du», entzuten nion guraso irribarretsu askori kozoortzen hasi den semeari helduen jarrerak eta itxurak antzematen zizkionean. Alabak ikusita ere normala izaten zen zer edo zer komentatzea, baina nago gurasoen ezpainetan irribarretsuaz gain kezka eta gaitzespena ere suma zitezkeela, konparazio batera, «hara, gure pinpirina!», entzuten zenienean.

Jakina, artean alaba ez zen printzesa. Gehienok sine-tsita geunden guraso euskaldunak libre zirela ameskeria horietatik, horiek hegoaldeko kontuak zirela. Gogoan dut Anna Magnaniren ahaleginak Viscontiren «Bellissima» eder hartan, edo Espainiako folklorikoen amen musu gartsuak. «Ole, mi niña!».

Alabaina, orain dela hogeit hamar urte errazagoa zen burua argi izatea, ez baitzen euskal telebistatik. Euskal Herri

super-entrañableak ortzadarra zabaldu du, eta zeruari begira jarri zaizkigu asko eta asko. Lehenengo lerroa kaletar jatorrez eta baseritar argiz beterik dago. Mutilak, oraindik ere, diferenteak dira («Qué shalao!»). Neskek urrunago luzatzen dute begiratua, eta han, hodeiertzean, Anne Igarburu begiztatzen dute.

Ezin uka, makurrenara jarrita ere, kongresuetako azafata izatera irits daitezkeela; eta ez da ahanzi behar askorentzat azafata aritzea kamarera izatea baino gehiago dela.

Egungo printzesa burges tipia, frakasua iritsita ere, ez da kikilduko. Feminismoa zer den ez daki, hitza ere ez du gogoko, baina espezial ikasia du erretorika berria: «Nire lana edonorena bezain duina da», «gizonak gure ametsak zapuzten saiatzen dira», «guk haiek baino ahalegin handiagoa egin behar izaten dugu honaino iristeko»...

Etorria ere ikaragarri gehitu zaie, gainera; afari batzuetan ez dute gizonik ametitzen, eta gure ipurdiaz eta zakilaren luzeraz hitz egiten ikasi dute. «Zer uste zenuten ba?».

Hartara, printzesa-gizontxoaren etorrerarekin, zirkulua erabat itxia da, eta gurasoek umeei esaten zizkieten haien oihartzunak entzuten dira. Telebistakoek kalean eta ikastetxeetan egindako inkesta (fresko) horietan da frogatzen: «Neskek tuntuak dira, beti arropaz, pinturaz eta txorakeriez solasean» (mutilek), «mutilak astakirten hutsak dira, joka aritzea gustatzen zaie» (neskek).

Norbaitek pentsa lezake gaztetu egin garela, sedukzioaren jokoa dagoela horren muinean. Zergatik ez? Batzuetan zimurraren jokoa konpontzen du hori, besteetan ez. Zahartu arte jarraitzen dutenak ere badaude. Konklusio batera iristen dira: «Gizon / emakume guztiak berdinak dira». Salbatuak gaude. Bejondeiela!

Iruñea ●

Bertako mozorroekin kalera

Donibane auzoko inauteriek hasiko dute Iruñeko ospakizunen garaia

Gaur eta bihar ospatuko dituzte inauteriak Iruñeko Donibane auzoan. Iruñeko inauteririk zaharrenak dira, hogeitaz pasatxo baitituzte, eta Donibanen bertan asmatuaz mozorroekin egiten dute kalejira.



Donibanen inauterietarako propio asmatuaz mozorroak erabiltzen dituzte, nekazari kutsukoak. ● JOXE LACALLE

SAGARDO JAIAREKIN HASI-ko dira Donibaneko inauteriak. Asuntzion plazan, 20:00etatik aurrera, Lekunberri-
tik ekarritako upeleko sagardoa emanen dute, gazta eta txorizoa-
rekin, eta trikitiak eta gaitak la-
gunduta. Gurdi batekin, kalejira
hasiko dute plazan bertan. Eta
gurdiarekin batera, momotxo-
roak, sorginak, txatxoak, katta-
lingorri, hori, berde eta urdinak
aterako dira. Asuntzionetik Ira-
txe karrikara joanen dira, handik
Vaguadara; eta Martin Azpilkueta-
tik Fiterora, ondoren Asun-
tzionen bukatzeko. Iaz Espainia-
ko Poliziarekin izan zituzten ara-
zoak saihesteko, udaltzainekin
hizketan izan dira, eta horiek tra-

fikoaz arduratuko dira kalejirak
irauten duen bitartean.

Ostiraleko mozorroei honako
hauek batuko zaizkie larunbate-
an: lamiak, Hartza ijitoarekin, zi-
ripotak, Zezengorria, Gauekoa,
Aharria, eta Oreina. Azken laurak
Donibanen inauterietarako pro-
pio asmatuaz mozorroak dira.

Goizeko hamarretan puska-
biltzea hasiko dute. Bidean zehar
tripa betetzeko aukera izanen

duen arren —baliteke txistor ja-
tea ere izatea—, 14:00etan baz-
karia eginen dute Donibane pe-
ñan. Puska-biltzen ibili den edo-
nork har dezake parte bazkarian.

Arratsaldeko seietan txokola-
te jatea eginen dute Vaguadako
iturri ondoan. Bizkotxoak ere
emanen dituzte. Eta zazpitan
berriro kalejira abiatuko da Auzo
Elkartetik. Desfilea Martin Azpil-
kuetatik Baionara joanen da;

handik Urdazubira, eta Olivatik
Ikastola plazaraino. Bertan erre-
ko dute Miel Otxin, baita pregoia
eman ere. Ospakizunekin buka-
tzeko, afaria eginen dute Basan-
dere tabernan eta Donibane pe-
ñan, 22:00etan. Afarirako txarte-
lak 1.800 pezetan daude, Basan-
deren eta Toki Eder tabernetan,
eta euskaltegian.

→ Asier Azpilikueta

Arantza ● Bortzirietako inauteririk goiztiarrenak

BORTZIRIETAKO INAUTERIRIK GOIZ-
tiarrenak Arantzakoak izaten di-
ra. Asteburu honetan ospatuko
dituzte arantzarek, heldu den
astean igantziarek, eta hama-
bortz egunen buruan, berriz, Be-
ra, Lesaka eta Etxalarren.

Arantzaren atzo hasi ziren inau-
teriak, eskolako haurrek presta-
tutako bizkarrekoak mozorroei
emanez. Mozorro zuriak puska-
biltzen ibili ziren baserri berr-
ri. Aurten hamabortz mozorro zu-
rik emana zuten izena puska-bil-
tzen ibiltzeko. Arratsean, ema-
kumeek ospatu zuten inauteria,
afaltzera elkartuz.

Gaur, ortzirala, mozorro zu-
riez gain, haurrak ere ibiliko dira
etxez etxe puskan-puskan.

→ Jon Abril

Gaurko egunez, ordea, herriko
etxeak hautatzen dituzte eskean
ibiltzeko. Arratsean, Gazte
Asanbladak antolatutako afariak
alaituko du inauteri arratsa. Bu-
zo eguna izaten da gaurkoa, eta
bertara agertzeko, beraz, kome-
ni izaten da buzo jantzita ager-
tzea. Bihar, larunbata, haurren-
tzako eguna izanen da, eta mo-
zorroturik aterako dira arratsal-
de partean. Ondotik, berendua
emanen eta arrats partean mo-
zorro beltzak aterako dira, bel-
durra eragitera. Arratsean, ber-
takoentzat ez ezik, kanpotik eto-
rritako gazteentzat ere ez da falta
izanen bestarako aitzakiarik.

Beruete ● Herri Txiroekiko Elkartasun Eguna

BASABURUKO KULTUR BATZORDEKO-
ek Berueten eginen dute aurtengo
elkartasun eguna. Bihar bertan,
arratsaldeko 17:30ean, izanen da
lehendabiziko ekitaldia, txiki-
enek hainbat jokotan parte
hartzeko aukera edukiko dute or-
du batez. Ondoren, kontu kontalari
batek beste kulturetan murgil-
duko du jendea bere ipuinen bi-
tartzet. Musikaren tenorea izanen
da arratsaldeko 20:30ean, Beruete-
ra hurbiltzen den guztiak Capoeira
ikuskizunarekin gozatu ahal izan-
en du. Ikuskizun horretan joko
afro-brasilarrak, dantzak eta bo-
rroka nahasten dira; eta musika
Alternativas taldeak jarriko ditu.

Ekitaldi horiek kanpaina luze

baten jarraipena besterik ez dira;
izan ere, azkeneko urte hauetan
Basaburuko Udalak aurrekontua-
ren %0,7a hainbat proiektutara
bideratu baitu. Lehendabizikoan,
Zimbaweko komunitate batean,
Etxalekuko Patxi Beloki misiolar-
riaren bidez, zerrategi bat eraiki-
tzeko laguntza helarazi zitzaion.
Mexikoko Sierra Oaxaqueñako
emakume talde batzuek ere lan
baldintzak eta osasuna hobetze-
ko proiektu bat osatu ahal izan zu-
ten; eta, azkenik, Mexikon bertan
errefuxiatuak dagoen Lazaro Gal-
lazarren familiak laguntza ekono-
mikoa jaso zuen.

→ Txari Eleta

ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Plan bat daukat (IV)

Egun horretan ekintza beldurgarri
hau egiteko hiru kide bilduko gara:
Euskararen Aldeko Solidarioen
hiru kide hautatuak. Hautatuenen
arteko hautatuenak. Adituen arte-
an adituenak. Hiru izango gara,
hiru. Hiru baitira funtsezko osa-
gaiak, hiru berunaren elektroiak,
hiru planetek burutu ditzaketen or-
bita motak, hiru Jainkoaren adie-
razpenak. Zertaz ari naizen? Indar
Ezezagunez ari naiz!

Egun horretan, diot, hiru Solida-
rioak Diputazioaren ondoan dago-
en estolda bat ireki eta bertan de-
sagertuko gara. Gure lehendabizi-
ko helburua San Ignazioren
plakaren azpian kokatzen den Ate
Beltza topatzea izango da (antzi-
na-ko testuetan Lapis Niger bezala
ezagutua izan dena eta batzuek
Erroman kokatzen zutena, gaizki
kokatu ere). Atea emakume alar-
gun baten ile batekin irekiko da
(567 urtez itxita egon ondoren),
edo bestela umezurtz baten betile-
arekin (liburuak ez datoz bat hone-
tan). Guk, badaezpada ere, alargu-
naren ilea eta umezurtzaren betilea
eramango ditugu. Gero Eskailera
Itzelak jaitsi beharko ditugu. Pisu
bat, bi, hiru... Zazpi pisu jaitsi arte!
Paper zaharrek asmatzen badute,
hortxe egon behar du Kaosaren eta
Iluntasun Hutsaren Erreinuako Pa-
sarteak. Hiruki Totala osatzeko te-
norea helduko zaigu, beraz: Unes-
coren Itun Sakratua, Bruselako Ma-
namenduen kopia bat (CD
formatuan) eta Korrikaren bideo
batekin lurrean Hiruki Totala osatu-
ko dugu, eta, horrela, Pasarteak lau
segundoz zabalduko da guretzat.
Lau segundo! Denbora horretan
sartu eta Denboraren eta Eromena-
ren Erregearen lurraldean izango
gara. Cthulhu Jainkoaren erre-
nua! (nor bestela?), zeinak inda-
rra ematen baitio bai Diputazioari,
bai eta Nafarroako Aurrezki Kutxari
ere. Cthulhuren aurrean Big Bang
garaietako Ezpata-dantza Kosmi-
koa dantzatu (bertsio laburtuan,
noski) eta, Jainko Beltza indarga-
betuz, beste Dimentsio batera bi-
daliko dugu. Geratzen zaizkigun bi
segundoetan hortik atera eta ospa
egingo dugu, oso pozik, oso garai-
le, Miguel Sanzen indarraren iturria
desagerturik, oso euskaldun, elkar-
ri musu batzuk eman ondotik, oso
klandestinoki banandu eta oso
klandestinoki etxeratuko gara, oso
lasaiturik, gauaren sekretupean. ●

Zaldikoaren naldikoa

ZALDIKO MALDIKO ELKARTEAK ANSOLEAGA karrikan du egoitza. Bi solairuko elkarte da. Goian harrera lekua, egongela eta sukaldia ditu, eta behean jantokia. Bertan hitz egin du NAFARKARIAK elkarte hiru kiderekin, Juanja Iturralde, Mikel Vilches eta Sergio Barandiaranekin. Iturraldek elkartearen sorreran lagundu zuen, elkarte historikoa da. Beste biak gazteagoak dira, eta hats berria ekarri diote Zaldiko Maldikori. Barandiaran lehendakaria dugu, eta Vilches, Batzordeko kidea.

«Donostian sortu berria zen Arrano Beltza elkarte, eta hori izan genuen eredu», gogoratu du Iturraldek. «Garai hartan euskaldun-tze-alfabetatze prozesuan sakontzea zaila zen, eta euskaldunak bildu beharra zegoen horretarako. Sorieran EHE sortu berriko jendea egon zen, baita AEK eta Arturo Kanpioneko jendea ere. Eta herrietako zenbait euskaldun zahar».

Hasierako urte haietan, leku batetik beste-

ra ibili ziren Zaldiko Maldikoko kideak, egoitza finkorik gabe, harik eta Ansoleaga karrikako etxabe batean egoitza ezarri zuten arte. Duela hamazazpi bat urte izan zen hori.

«Ez da gastronomia elkarte»

Zaldiko Maldikon ongi afaltzen den arren, betiere sukaldariaren trebetasuna dela medio, Zaldiko Maldiko ez da elkarte gastronomikoa. «Kontua zen jendea biltzea euskarazko harremanak bultzatzeko», adierazi du Iturraldek. «Hori da Zaldiko Maldiko, euskaldunon biltokia; euskaldunok biltzea beharrezkoa baita euskaraz egiteko. Eta bilgune horren barnean, kultur ekintzak, gastronomia, folklorea eta bestelakoak sartzen dira».

Vilchesek dio ez dakielako zehazki zer den Zaldiko Maldiko, baina «Iruñerriko euskaldunen-tzako erreferente kulturala» izatea gustatuko litzaiok: «Zaldiko ezaguna izatea, batez ere, egin duen kultur programazio horregatik».

Barandiaranek, berriz, Zaldiko biltokia dela nabarmendu du, baina baita hainbat ekimenen abiapuntua ere. «Zaldiko toki irekia izatea nahi dugu, euskaldunek ikus dezaten erreferentea dela, hemendik abiatzeko, hemendik geroz eta gauza gehiago sortzeko».

Tamaina ttikiko kultur programazioa

Hasieratik, Zaldiko Maldikokoek ikusi zuten elkartearen lanildo nagusietako bat euskarazko kultur ekitaldiak eskaintzea izan zela. Urritik ekainerako kultur programazioa antolatzen dute urtero, hamabostean behin-edo kultur ekitaldiaren bat eskainiz. Hogei urte hauetan euskal kulturaren pertsonarik garrantzitsuenak pasatu dira Zaldiko Maldikotik. Eta bestelako ekitaldiak ere antolatu dituzte: euskaldunentzako partxis, mus eta xake txapelketak, zinema emanaldiak, Santa



Kultura bai, jatekoa ere bai

Zaldiko Maldiko ez da elkarte gastronomikoa, baina sukalde ederra dute, baita jantoki atsegina ere. Edozein bazkidek du sukaldia eta jantokia erabiltzeko eskubidea, eta Santo Tomas egunean edo sanferminetan, otordu jendetsuak eginen dituzte Zaldiko Maldikon. Sanferminetan, gainera, elkarte taberna Arturo Kanpion euskaltegiko lagunek hartzen dute, eta euskaldunen bilgune izatea lortzen dute.

Bertsoskola




Iruñean egin ziren bertsoari zikloa ikas-taro batzuen ostean, Zaldiko Maldikoko bertsoskola sortu zen. Handik bideratu zen lehenbiziko Nafarroako Bertso Txapelketa, egungo formatuan. Eskolatik honako hauek pasatu dira, besteak beste: Bittor Elizagoien, Felix Inurategi, Nicolas Izeta, Patxi Zeberio, Mikel Urdangarin, Manu Legarra, Manu Gomez, Mikel Taberna, Josema Leizaola, Lontxo Aburuza, Juanjo Respaldiza, Mikel Burgi eta Bernardo Azpillaga. Hilaren bukaeran Kike Diez de Ultzurrun eta Pablo Jose Aristorena kazetariak —argazkian, 1989ko jai batean— bertsoari zikloa iri-ko dira, eta afora eginen dute beste guzkiekin batera.



Mikel Vilches
ZALDIKO MALDIKO ELKARTE
EUSKATZALEKO KIDEA

«Bi adin talde ditugu. Alde batetik, hasierako bazkideak, urteetan sartuak jadanik, berrogei urtetik goitikoak denak. Eta bestetik, garai bateko bazkideen seme-alabak, oraintsu sartu direnak»



Sergio Barandiaran
ZALDIKO MALDIKO ELKARTE
EUSKATZALEKO KIDEA

«Zaldiko euskaldunen ekimenen abiapuntua izatea nahi dugu. Toki irekia, euskaldunek kultur erreferentzetan izan dezaten, hemendik abiatzeko, hemendik geroz eta gauza gehiago sortzeko»



Zaldiko Maldiko elkarteak hogete ditu Iruñeko euskal kulturaren alde

Duela hogeit bat urte, euskaldunak sakabanaturik zeudela ikusirik, Iruñeko euskaltzale talak eta euskaldunen biltokia izan zen elkarte bat sortzeko lehen bilerak. Euskaldunak biltzea lortu nahi zuten, eta lortu dute, zio Maldiko hogeit urteotan euskarazko kulturareferentzia izan da Iruñean.



Euskalgintzari irekia

Zaldiko Maldiko elkarte euskaltzalea da, euskaldunen biltokia, «euskalgintzari erabat irekia», Iturraldek dioenez. Horregatik, euskalgintzako hainbat taldek (EHE, Oinarriak, Sortzen, Orreaga, Kontseilua...) bilerak eta prentsaurrekoak egiteko erabiltzen dute Ansoleaga karrikako egoitza. Oinarriak plataformak, nolabait, Zaldiko Maldikon izan zuten sorrera, bertan egin baitzuten lehen bilerak; irudian, 1997ko azaroko bat.



Agedako abesbatzaren irteera, Santo Tomas eguneko txistor jatea.

«Nahiz eta tamaina ttikiko ekitaldiak izan, Zaldikok hamazazpi urte daramatza kultur programazioa antolatzen», adierazi du Iturraldek. «Eta Zaldikok jarraitu behar du erakunde dinamikoa izaten, Iruñeko kulturgingitza eta euskalgintzako eragilea izaten».

Kultur programazioaz landara, Zaldiko hainbat ekimen eta talderen abiaburua izan da. Zaldikoko bertso eskolan bertsozale elkarte eta txapelketa bideratu ziren. Zaldiko-kideek barre-algaraka gogoratzen dute beti nola mikrofonoarekin ohitzeko erratza erabiltzen zuten bertsoari gaitak. Eta Oinarriak plataformak ere Zaldikon egin zituen lehen bilerak.

Izan ere, Iturraldek behin eta berriz azpimarratu duenez, Zaldiko erabat irekia da euskalgintzako taldeei dagokienez. «Zaldiko euskararen alde lan egin duen elkarte da», erran du. «Bazkideek, hona sartu baino lehen, badakite hori. Horregatik, bazkide askok bazkide izaten jarraitzen dute, nahiz eta hemen gutitan agertu».

Bazkideen gaztetzea

Zaldiko Maldiko aitzindaria izan zen kultur programazioa antolatzen. «Beti izan gara eredu, eta pozik gaude horregatik», dio Iturraldek. «Baina inor ezin dalteke historiari bizi. Gure eginkizuna eguneratu behar dugu».

Egun 140 bazkide dituzte Zaldiko Maldikon. Bazkide izateko 25.000 pezetako sarrera ordaindu behar da, eta hilean 1.000 pezetako

kuota. «Baina erratasun guziak ematen ditugu», gaineratu du, bizkor, Barandiaranek. «Eta bazkide kopurua erabat irekia da». Bazkide izateko baldintza bakarria euskalduna izatea da.

Zaldiko Maldikon, edozein elkartetan bezala, gorabeherak izan dira. Eta hori bazkideen adinean nabaria da, Vilchesek zehaztu duenez: «Bi adin talde daude. Hasierako bazkideak urteetan sartuak dira, eta ez dakit horietatik zenbat geldituko diren, 60 bat edo, berrogei urtetik goitikoak denak. Eta beste taldea gazteek osatzen dute. Garai bateko bazkideen seme-alabak sartu dira orain». Halako krisi ttiki bat izan zuten, egoitzan lanak egitearekin batera. «Lanak bukatu eta martxari berriz ekiteko, ikusi genuen jendea erakartzea kostatzen zitzaigula», azaldu du Barandiaran lehendakariak. «Baina orain goraka goaz. Iaz zazpi bat bazkide berri izan genituen. Elkarte gaztetzen ari zaigu».

Zaldiko Maldikok hogeit urte bete ditu, baina ez dute ospakizun berezirik eginen. «Urteroko kultur programazioarekin jarraituko dute, hori baita urteurrena ospatzeko modurik egokiena». Hala, bada, heldu den asteazkenean, Mikel Urdangarinnek kontzertua eskainiko du Salestarren aretoan, 20:00etan. Zaldiko Maldikoko bertso eskolan ibilia da. Gainerakoan, hilaren bukaeran afora eginen dute bertso eskolatik pasatu ziren bertsozale guzkiek. Eta udaberri partean, elkartearen historia eta istorioak laburbilduko dituen aldizkari argitaratuko dute.

→ Asier Azpillikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Klasiko bitxion seigarren urteurrenean

Bihar sei urte beteko dira *Klasiko bitxi arront klasiko* zutabe luzanga, trinko eta hizki ñañarreko hau karrikaratzen hasi ginenetik. Bada zerbait, bai eta nahikoa segurki ere, eta dudarik gabe ez du luze joko beste norbaitek geurea izan den paper sail hau bere gain hartuko digun arte.



Ez dira gutxi sei urte hauetan barrena klasiko bitxien zutabe honetan labaindu direnak. Estreinako aldian, 1995eko otsailaren 10 hartan, Orreagako Amari Uharteko Juan fraideak 1619an eskaini olerkia jaso genuen. Orduko hasmenta hura Juantxo Urdirotz adiskideari zor diogu, bera izan baitzen, orrialde-lagun ez ezik, NAFARKARIAN idazteko bidea erraztu ziguna. Markalaingo idazlea, *Ez usteak zure atean joka* izenburuko zutabea egiteaz nekaturik edo, Elias Beorburu de Berriobeiti Jaun Dotorearen *Behin behineko euzko sendimendu kontsulta* plazaratzen hasi zenean, geron *Klasiko bitxi arront klasiko* ere hasi zen agertzen NAFARKARIAREN laugarren orrialdean. Konpainia ezin hobean, beraz. Orduan Alberto Barandiaran genuen geure gehigarri xar-mantaren arduraduna; nafar-ran lan ona Argia sariarekin txalotu zigutenean hain zuzen. Egun, ordea, erraztasunera aiduru dauden garaiotan, *Sorginen laratza* bezalako hanturgesa kulturalak goraiatzat dizkigute, garaiek galdutakotari ongi baino hobeto egokitzten jakin badakigulako seinale, omen, seriotasun falta honek kalitatearen kaltetan nabarmenki bada ere.

Irakurlea gogoratuko denez, sei urte hauetan hainbat aldaketa izan du NAFARKARIAK, itxura zein mami aldetik. Geure zutabea agertu dugun bitartean behinik behin, hiru maketazio aldaketa gertatu dira, guztietan ere orri-lagunaren aldaketa ekarri diguna. Urdirorrek ele pilaketa utzirik Urderzo-Lakostiniren iragarkiak lehenbizi eta Castelaoren marrazkiak gero haiku moduko hitz laburrez hornitzera pasatu zenean Santi Begiristain idazle

xalo, euskara irakasle fin eta txistulari trebea izan zen aste-roko bidaide. Huraxe 1995eko azaro hasieran gertatu zen. Orduan izan zen klasiko bitxiak txistorragotu zirenekoa, zutabe bakar batean mehartu, flakatu eta tirtetu beharrean txikituta irakurgaitz eta nekoso geratu zirenekoa. Zaila izan zaigu beti kopuru baxuetara egokitzea gaiak soberako erakarpina zigunean, eta hori askotxo agitu da. Alde horretan behintzat, nahikoa zorabio izan gataizkie gure kolaborazioak jaso dituzten kazetariei, hots, aipatu Barandiaranen ostean, Edurne Elizondo, Irene Arrizurieta eta Asier Azpilikueta kazetari atsegi-nei. Barkamenak eskatzen dizkiegu horrengatik.

Bi urte beranduxeago, 1997ko azaroan hain zuzen ere, NAFARKARIAKO formatu berriak leku aldaketa ekarri zigun, orri barruko eskuinaldetik orri ertzeko ezkeraldera. Bereganaturiko toki berriaren tamainak marrazkia eta guzti eskaini zigun; alabaina, ohiko karaktere kopuruaren aferak berean iraun zuen. Orrikide berria Pátziku Perurena izan zen, bere *Etorri ahalean* sailarekin. Geure idazle handiaren segida berriki moztu zen, 2000ko urriaren 20an. Ez dateke honakoa zergatien berri aieratzeko tokia, baina bagaude galera handiagoa izan dela onartu nahi izan dena baino. Ez ailedi Tuterakoaren kasuan bezala, euskal letrek beste idazle bikain bat galtzeko aitzakia. Perurenarekin batera Momotxorrosolo jauna etorri zitzaigun, *Ziria* puntuen egilea. Gaitzizenen garaia jadanik gaindituta zegoela uste genuen,

hara non etortzen zaigun beste bat. Etorkizuneko iker-tzaileak zomorro honen atzean nor ote zegoen asmatzen hola-katuko badira ere, gerok bederik ere ez dugu desiraturiko nortasun ezkutatzea urratuko, jarrai beza bada ziri egileak ezezagun berak hala nahi dueno.

Perurenaren galera betetzeko eta gorago aipatu egungo filuskeria modaren erakusgarri, lagun zaharra dugun Pello Koldo Argiñarena Urritza zaigu etorri *Panpilonia zirkus* arekin, bere *Metropoli forala* irrati saio-tik; Argia sariarekin

berriki sarizatuta gertatu den horretatik, alegia. Irakurlearen gus-




tukoa izan dadila bada. Geron kasuan bederen, gutxi izan dira irakurleen aldetik jaso ditugun aipamenak, ezpada ohiko «gizon zaharragoa hintzelako us-tetan geundean!». Hala aitortu zuen Itxaro Bordak orain urte batzuk *Egin* egunkarian ateratako kolaborazio labur batean Tuterako Ikastolan elkar ezagutu ostean. Bestalde ere, gutxi izan dira sei urte hauetan ezer esan digutena, baina erranai-ruak dioten bezala, «arrainak gan eta sareak hedatzen», ausaz geroago etorriko dira, hau da, beranduegi denean.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Datorren asteazkenean Maiteminduen Eguna da. • JOXE LACALLE

Opari oparo

GEZURRA BADIRUDI ERE, IRUÑEKO alkate anderea erabaki txalogarri bat hartzeko gai izan da. Behingoarengatik, hiritarren nahia bere egin du. Arrotxapea auzoko Gages k plazari bere jatorrizko izena paratzeko agindua eman du. Hemendik aurrera, maiteminduen plaza izanen da berriro. Horrela bai, Yolanda. Portzierto, nor izan zen Gages kondea? Nork ezagutzen du? Nori zaio axola? Gainera, maitasunak merezi zuen Iruñean plaza bat. Plaza bakarrik ez. Rosak eta Alfredok amodioaren alde ahalegin berezia egin behar dela uste dute. Telecupido zerbitzua jarri dute abian. «Cupidoren mezulariak gara. Sentimenduak harat-hunat eramaten ditugu». Betiere, bihotzaren sakonera egiten den bidaiak 10.000 pezeta balio du. Diru horren truke hauxe da eskaintza: «Arrosa bat eraman, eta horren ondoren, poesia bat irakurtzen diogu bere etxean gure bezeroak agindutako lagunari».

Egunotan lanez gainezka dabilta, datorren asteazkenean San Valentín eguna ospatuko baita. Urte osoan izaten dute lana: urtebetetzeak, Amaren edo Aitaren egunak, urtemugak, zilarrezkoa ez-teiak, jaiotzak...

Hala ere, bikotekide gazte-ek erabiltzen dute batik bat zerbitzu berri hau. Gizonezkoak joaten dira gehien haiengana. Tarteka lan bereziak egiteko ere deitzen di-

tuzte. «Maitasun deklarazioak sarritan egiten ditugu bezero lotsatien izenean. Hase-erre edo banandurik dauden bikotekideak adiskidetzeko ere nahiko lan izaten dugu. Horrelakoetan, mantso aztertzen dugu bezeroaren egoera eta arazoaren muina, badaezpada ere».

Ondorio gisa, iruindarron izaera itxia dela eta zerbitzu hau lagungarri izan daitekeela uste dute Rosak eta Alfredok. Aurrerantzean Euskal Herri osora zabaltzea da haien xedea.

Bestetik, otsailaren 14an edo beste edozein egunetan maitasuna adierazteko opariak betiko moduan egiteko aukera asko dago. Asun Caterna Lislore dendako kidearen aburuz, «arrosa gorriak eta orkideoak saltzen dira gehien. Bezero gehienak oso gaztetxoak dira, baita hogeita hamar urte ingurukoa ere. Lore sortarekin batera ohar-txo bat idazten dute».

Tamalez, azkarregi ihar-tzen dira loreak, eta hainbatek nahiago du bestelako opariak erostea. Ana Szalay Ayandek dendako jabeak dioenez, «asko aldatu dira ohiturak azken urteotan. Orain opariak edonoiz egiten dira, egun berezien zain egon gabe. Gainera, opari praktikoak egiten dira. Batez ere, jende gazteak erosten ditu». Ez baduzu inor maitate, zurekin ez bada inor akordatzten, egiozu opari bat zeure buruari, ze demonio!

Ziria

• Motxorrosolo •

Aldaketa

GARAI ALDAKETA ZIOEN. GUREAN, IRAULI ADITZA EGUNERO jokatzeko delat sinetsarazi nahi izan digute. Egoera ziztu bizian alda daiteke. Zenbait aferatan kanbiamendurik ez; betitikoak elkartu ziren frontoiaren inguruan. Hotelak ez omen zuten gisako aterperik ematen.

Jesus Cedazo

NAFARROAKO ESPERANTO ELKARTEKO KIDEA

«Esperanttoa ez da inorena, eta, aldi berean, denona da»

Esperanttoa ikasi nahi duten iruindar guztiek astelehenero Iturramako kultur zentroan dute aukera, Nafarroako Esperanto Elkarteke kideek antolatutako ikastaroei esker. Zamenhoffek 1877. urtean sortu zuen hizkuntzak gero eta jarraitzaile gehiago ditu mundu osoan, eta haietako bat da Jesus Cedazo nafarra.



s o s l a i a

Sortu zenetik dago Nafarroako Esperanto Elkartearen Jesus Cedazo, hau da, duela hamabi urtetik. Beste lauzpabost lagunekin elkartu zen zekien esperanto apurra hitz egiteko, eta, pixkanaka, taldea handituz joan zen. Orain, berak irakasten die esperanttoa elkarteke berriei.

Zabaltzen ari den mugimendua dela uste du Cedazok, eta, egun, mundu osoan, esperanttoa hamabost bat milioi lagunek hitz egiten dutela azpimarratu du. «Zoragarria da munduko edozein txokotara joan eta lehen unetik elkar ulertu ahal izatea».

Une batean erabaki genezake frantsesa edo ingelesa izatea denon hizkuntza, baina, ezin dugu ahaztu hizkuntza horiek atzean daukatena; hau da, ingelesaren atzean, adibidez, kultura zehatz bat dago, pentsamolde bat, interes ekonomiko batzuk, eta hori ezin dugu bazter utzi. Esperanttoa, berriz, ez da inorena, eta, aldi berean, denona da.

■ Baina esperanttoa denon hizkuntza bilakatzeak ez lieke min eginen tokian tokiko beste hizkuntzei, euskarari gure kasuan?

Ez. Hasieran kezka hori agertu zen, baina ez du zertan kaltegarria izan, esperanttoa beste herrietako jendearekin hitz egiteko hizkuntza litzatekeelako. Hau da, bakoitzak bere hizkuntza du bere etxean edo herrian hitz egiteko eta besteekin komunikatzeko, eta gero, kanporako, edo beste herrietako jendearekin harremanetan jar-

ona iruditzen zaigulako; ez dugu beste asmorik. Elkartearen bidez, noski, ezagutzera eman nahi dugu, eta nahi duenari ikasteko aukera eskaini. Oso gauza interesgarria da mundu osoko jendearekin komunikatu ahal izatea, hizkuntzaren muga gaindituz.

■ Zenbat lagun bildu zarete?

Urtero 250 bat lagun igarotzen dira elkartetik, baina sasoiaren arabera gehiago edo gutxiago izaten gara, jende gazteak ikasketak dituelako, helduek lana dutelako. Baina nahiko talde sendoa gara, eta astero elkartzen gara, hitz egiteko, ikasteko, irakasteko eta beste hainbat ekitaldi egiteko. Beste leku batzuetan, dena den, egoera ezberdina

da. Katalunian, adibidez, kredituak ematen hasi dira unibertsitatean esperanttoa ikastearen truke. Are gehiago, Europako Batasuna aztertzen ari da esperanttoa Europako hizkuntza izateko aukera, edo, gutxienez, Europako hizkuntzetako bat. Finean, hizkuntza neutrala da esperanttoa.

■ Neutrala zein zentzutan?

ESPERANTOIA KOMUNIKAZIO tresna baliagarria eta interesgarria da Cedazorentzat, mundu osoko jendea harremanetan jartzeko balio duelako. Aspaldi ikasi zuen berak, eta nabari da hizkuntza hori atsegin duela, solasaldian hainbatetan tartekatutako hitzak esperantoz.

■ Nola sortu zen Nafarroako elkarte?

Lazaro Ludovico Zamenhoffek 1877. urtean sortu zuen esperanttoa, eta, 1906. urtean hizkuntza horren inguruko elkarteak sortu ziren Gipuzkoan eta Bizkaian; nahiko tarte laburrean, beraz. Nafarroan apur bat beranduago sortu zen elkarte. Espejo tabernan biltzen

ziren, eta orduko agiri eta material asko aurkitu dugu liburategian. Guk, duela hamabi bat urte, talde haren asmoak berreskuratu nahi izan genituen. Eta lan horretan ibili gara urte haue-

■ Eta zeintzuk dira zuen asmo horiek, zuen helburuak?

Gu elkartearen gaude esperanttoa maite dugulako eta ideia

«Guk inoiz ez dugu defendatuko esperanttoa hizkuntza bakartzat; elkar ulertzeko tresna bat da, hizkuntza laguntzaile bat»

tzeko esperanttoa erabil dezake. Guk inoiz ez dugu defendatuko esperanttoa hizkuntza bakartzat. Tresna bat da, hizkuntza laguntzaile deitzen diogu guk. Onuragarria ere izan daitekeela uste dut, esperanttoaren bidez hizkuntza gutxituen berri zabaltzea errazagoa litzatekeelako.

■ Esperanttoa hizkuntza gutxitutzat har daiteke edo izaera berezia du?

Neurri batean hizkuntza gutxitua da, baina bere izaera unibertsalak berezi egiten du.

Orain, mugimendu handia dago esperanttoaren inguruan, eta talde asko dago esperanttoaren ideia defendatzen. Era askotako taldeek erabiltzen dute esperanttoa, sindikalistek, anarkistek, ekologistek, eta abarrek. Egun, gainera, Interneti esker, aukera zabala dago mundu osoko taldeak lotzeko. Halaber, aldizkari asko dago, eta liburuak ere bai, beste hizkuntzetakoak esperantora itzultitakoak, eta alderantziz ere gertatzen da.

→ Edurne Elizondo

‘Kiel vi fartas?’

HIZKUNTZA ARTIFIZIALEAREN ARTEAN EZAGUNENA DA ESPERANTOIA. ZAMENHOFFEK sortu zuen mundu osoko jendeak elkar uler zezan, kontuan hartuta ikasteko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko erraza izan behar zuela. Jesus Cedazori hainbat esaldi proposatu dizkiogu esperantora itzultzeko. *Egunon*, adibidez, *bonan tagon* erraten da esperantoz, eta, norbaiti zer moduz dagoen galdetu nahi badiozu, *kiel vi fartas?* erran behar diozu. Mi fartas bone erantzuten badizu, primeran dagoen seinale.

Euskara vask-linguo da esperantoz, baina batzuek *eusko-linguo* erratea nahiago dute. Gaurkotasun osoko gaiak ere badute lekua esperanttoaren hiztegiaren, eta, *behi eroa*, adibidez, *malkapo bovino* da hizkuntza horretan.

Agurtu baino lehen, *la ōs tempo parolos esperante* bota digu Jesus Cedazok, hau da, etorkizunak esperantoz hitz egiten duela.



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Zugarramurdi edo Baztango baserriak?

ZUGARRAMURDIREN ETA BAZTANEN ARTEKO aspaldiko afera berpiztu da. Berez, Baztango lurra dauen 57 baserri eta bertan bizi den jendeak Zugarramurdi egiten du eguneroko bizimodua: erosketak, ikasketak, elizkizunak, mediku kontsultak... Zergak ordaintzeko edo bozak emateko orduan, ordea, Elizondo aldera jo behar izaten dute. Hori dela eta, hainbatetan, Baztandik banatu eta Zugarramurdi sartzeko asmoa azaldu dute baserri hauek; aunitzetan azken 400 urteotan, eta asmo horrekin bat egin zuen duela pare bat urte Zugarramurdiko Udalak ere; hala bereizketarako eskaria egin zuen Nafarroako Gobernuko Leku Administrazioan.

Baztan Balleko Udala, berriz, epaitegiatara joateko prest azaldu zen, eta zugarramurdiarrek bere asmo horrekin segitzekotan, herri hori Baztango lurretara atxikitzeko eskaria egingo dutela mehatxatu zuen. Berteetan bezala, erdi itzalia egon da bi urteotan afera, baina Rafael Gurra kontseilariak berriz ere hauspoari eragin dio, eta sua berpiztu. Baztanen, orain arte bezala, ez dute begi onez ikusi eskaria, eta bereizteko espedientearekin segitzen badute, bizilagun gisara hartzen dituzten zerbitzu batzuk zugarramurdiarrei murriztu egingo dizkietela erran dute Udalean.

Pedro Esarte historialari baztandarrak dioten bezala, ez da erraza denak gustura utziko dituen konponbide bat bilatzea. Gisa bereko kasuak ikusten dira urrutira joan gabe. Petilla herri nafarra hor dago, Aragoiko lurra; Trebiñoko konderrria ere bai, Arabaren bihotz-bihotzean... Garai bateko lur banaketan ondorioz ezarri ziren mugak hartu behar dira aintzat? Edo, gaur egun zerbitzuak zein herri edo herrialdeetatik eskuratzen dituzten hartu behar da kontuan?

Agian, urrunegi joatea izanen da, baina kolonialismoaren uztarriean egon ondotik, Afrikan ezarri ziren muga xuxenak, koadrikulatuak datozkit burura. Marraren alde batean eta bertean sakabanatuak gelditu ziren familiak, tribuak, etniak... eta gaur egun oraindik banaketa horien ondorioak pairatzen ari dira. Zugarramurdiarrek eta baztandarrek, anaiarteko aterabide hobea bilatuko dutelakoan...

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** El Color de la Duda taldea Yes tabernan (Zilbetiko monasterioa) izanen da gaur, 22:00etan.
- **Elizondo:** Los Rosslis taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, Kasino ostatuan.
- **Ezkizotz:** Pablo Liquidoren bertsiok entzungo dira gaur Irish Pub tabernan, gaueko hamaiketarik aurrera.
- **Gares:** La Polla eta Kaotiko taldeek Gares aretoan joko dute bihar, 22:00etan.
- **Iruñea:** Jousilouli talde gazteak Black Rose tabernan joko du asteartean, 20:30ean.
- **Iruñea:** Mustard Plug taldea Txantreako Akelarre tabernan izanen da asteartean, 21:30ean.
- **Iruñea:** Mikel Urdangarinek salearren aretoan kantatuko du asteazkenean, 20:00etatik aurrera.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur *Amerikako historia X* filma eta *Hauspo soinua* film laburra pantailaratu dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.
- **Iruñea:** Korrika Kulturalaren baitan, hil honetan, asteazkenean, haurrentzako euskarazko filmak pantailaratu dituzte San Fermin peñan (Arrosadia), 16:00etan.

ANTZERKIA

- **Bera:** Bihar, larunbatarekin, Goaz antzerki taldeak etorkinen inguruko Zubi gizakiak lana taularatu du 20:00etan, kultur etxean.

HITZALDIAK

- **Zangoza:** Mikel Sorrauren historialariak XVII. mendeko Nafarroako erakundeei buru hitz egiten du gaur, 20:30ean, kultur etxean.
- **Iruñea:** Koldo Zuazok *Euskaren sendabelarrak* liburua aurkeztuko du asteartean Iruñezar euskaltegian, 20:00etan, Korrika Kulturalaren baitan.
- **Iruñea:** Asteartean, 20:00etan, Bertatik bertara telebista saioko zuzendari Elixabete Garmendiak eta Nerea Iriarte aurkezleak hurbileko informazioa-

ren arrakastaz solastatuko dira, Erraldoien Txokotan.

- **Iruñea:** Ostegunean, Iruñerriko euskara izanen dute mintzagai Patxi Salaberrik eta Iñaki Caminok, Iruñezar euskaltegian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Miguel Angel Elizondoren margolanak daude ikusgai Gazteriaren Etxean hilaren 16a arte, Astelehenean ostiralera 18:00etatik 20:30era, eta larunbatetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Burlata:** Zubiarte grabatu lantegiko lanen erakusketa dago Joakin Azkarateko kultur aretoan, hilaren 18a arte. Asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Blanca E. Zuzaren margolanak daude ikusgai kultur etxean, hilaren 18a arte. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Zangoza:** Hilaren 24a arte Xabier Santxotenen Burdinari gorespina proiektu esperimentala ikus daiteke kultur etxean; asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.

• PATRICIA ASTRAIN



Ekintza zuzena

Euskara maite dutenen artean beste eztabaida bat sortu da. Edo, egiaren errateko, eztabaida zaharra berriz sortu da. Kontua da azken hilabeteotan Nafarroako Gobernuak gogor ekin diola euskarari. Legearen bidea hartu du horretarako. Gobernuari errealitatea gustatzen ez zaionez, legea aldatu egin du euskara begien bistatik kentzeko. Berdin egin zuten Itoitzen afera. Naturguneen Legeak traba egiten zenez, aldatu egin zuten. Euskaltzaleak Gobernuaren erasoei nola aurre egin pentsatzen ari dira orain. Batzuek bide juridikoa hartu nahi dute. Beste batzuek rotaflexaren ekintza zuzena egokiaz jotzen dute. Eta badira bi borroka motak uztar daitezkeela pentsatzen dutenak ere. Itoitz berriz.